

Unibertsitateko ikasketak eta graduatuaren aurrerantzeko lan-egoera



Barrutialde Institutua

DBH-4 ko ikasleak:

Lide Gerediaga, Garazi Garitaonandia, Olaia Rementeria eta Maialen Casas

2021 / 2022 ikasturtea



BARRUTIALDE
INSTITUTUA

Aurkibidea

<u>Laburpena</u>	4
<u>Helburua</u>	4
<u>Datu-bilketa</u>	5
<u>Emaitzen azalpena, analisisa eta interpretazioa</u>	6
Unibertsitateko graduak zeren arabera aukeratzen dira?	6
Unibertsitateko graduatuen lan-egoera	6
Unibertsitate ikasketak uztea	10
Unibertsitate graduatuen masterrera-trantsizioa	11
Unibertsitateko graduen aldaketak	12
<u>Ondorioak</u>	12
Ikasketak uztea - Ikasketak aldatzea	12
Ikasketak aladztea - Masterrera trantsizioa	13
Lan egoerak	13
<i>Lanean</i>	
<i>Langabezian</i>	
<i>Ez-aktiboa</i>	
<u>Analisi kritikoa</u>	13
<u>Bibliografia</u>	14

Laburpena

Gaur egungo gazteek presio handia jasaten dute gizartearen partetik “irteera” duten unibertsitate gradu edo karrerak aukeratzeko.

Guk, DBH-4ko ikasle bezala, laster erabaki hauetan murgiltzeko beharra izango dugu. Hori dela eta, ikasleek unibertsitateko graduak zeren arabera aukeratzeko dituzten ikertu dugu; zenbatek hautatzen duten bokazioz eta zenbatek lan-irteeren arabera.

Behin horretan hasita, zenbat pertsonak aldatzen duten gradua, zein kopuruk uzten duen karrera eta masterrean zenbatek izena ematen duten kalkulatu dugu; beste hainbat atalen artean.

Matematikako atalari dagokionez, 2013-2014 ikasturteko graduatuen datuak erabili ditugu, INE-k (Instituto Nacional de Estadística) daukan webgunetik hartutakoak; hauek erabiliz egin ditugu gure kalkulu estadistikoak.

Helburua

Proiektu honen helburua, ikasketetan ari diren pertsonen karreraren uztasuna, masterreko-trantzisio tasak, karreraren arteko aldaketak, eta bestela, hauek bukatzerakoan ikasleek izaten duten lan-arrakasta kalkulatzeko izan da; baina beti ere estatistika erabiliz.

Datu-bilketa

Lehen aipatu dugun bezala, datuak EDUCAbase eta INE-ren webgunetik ateratakoak dira, bertan zer nolako informazioa nahi den zehaztu eta zenbakizko datuak eman ditu; eta eremu jakin bateko graduatuak lanean, langabezia edo ez-aktibo dauden adierazi ditu.

Select values to consult

Sexo

 Ambos sexos
 Hombres
 Mujeres
 Selected: 3 Total: 3

Titulación

 TOTAL
 01 - EDUCACIÓN
 Pedagogía
 Educación infantil
 Educación primaria
 Otros maestros
 Selected: 1 Total: 112

Situación laboral en 2019

 Total
 Trabajando
 En desempleo
 Inactivo
 Selected: 1 Total: 4

Choose format of the table

	Situación laboral en 2019
Sexo	-
Titulación	-

Hemen lortutakoa datutegi batean jarria izan da, kalkulu-orri baten zehazki:

Unibertsitate-graduatuaren lan-egoera 2013-2014 ikasturtean. Zifra absolutuak

Unibertsitate-graduatuaren lan-egoera, titulazioaren arabera

Unitatea: pertsonak

	Total	Lanean	Langabezia	Ez-aktibo
GUZTIZKOA	233.626	201.138	17.588	14.901
01 - HEZKUNTZA	41.108	33.774	4.637	2.697
02 - ARTEA ETA GIZA ZIENTZIAK	20.216	15.586	2.459	2.171
03 - GIZARTE ZIENTZIAK, KAZETARITZA ETA DOKUMENTAZIOA	21.241	18.081	1.756	1.403
04 - NEGOZIOAK, ADMINISTRAZIOA ETA ZUZENBIDEA	48.349	40.608	3.508	4.232
05 - ZIENTZIAK	12.233	10.232	1.195	805
06 - INFORMATIKA	6.859	6.604	153	102
07 - INGENIARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA	38.686	35.602	1.763	1.321
08 - NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, BASOGINTZA, ARRANTZA ETA ALBAITARITZA	4.033	3.574	219	239
09 - OSASUNA ETA GIZARTE-ZERBITZUAK	33.181	30.563	1.298	1.320
10 - ZERBITZUAK	7.720	6.514	597	609

Emaitzen azalpena, analisisa eta interpretazioa

1. Unibertsitateko graduak zeren arabera aukeratzen dira?

UNITOUR-ek 2018-2019an egindako ikerketa baten arabera, inkestatutako gazteen %52ak unibertsitateko gradua bokazioz aukeratzen zutela zioen, eta %35ak ikasketen lan-irteerak kontuan izanten zituztela.

2. Unibertsitateko graduatuen lan-egoera


Hipotesiak: Hezkuntzako ikasleek lortuko dute lan gehien. Nekazaritza, Abeltzaintza, Basogintza, Arrantza eta Albaitaritzako ikasleek, aldiz, izango dute enplegu gutxien. Eta inaktiboek zerbitzuetako ikasleak izango dira.

Datuak:

	Lanean	Langabezian	Ez-aktibo
01 - HEZKUNTZA	%82,16	%11,28	%6,56
02 - ARTEA ETA GIZA ZIENTZIAK	%77,10	%12,16	%10,74
03 - GIZARTE ZIENTZIAK, KAZETARITZA ETA DOKUMENTAZIOA	%85,13	%8,27	%6,61
04 - NEGOZIOAK, ADMINISTRAZIOA ETA ZUZENBIDEA	%83,99	%7,26	%8,75
05 - ZIENTZIAK	%83,65	%9,77	%6,58
06 - INFORMATIKA	%96,28	%2,23	%1,49
07 - INGENIARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA	%92,03	%4,56	%3,41
08 - NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, BASOGINTZA, ARRANTZA ETA ALBAITARITZA	%88,64	%5,43	%5,93
09 - OSASUNA ETA GIZARTE-ZERBITZUAK	%92,11	%3,91	%3,98
10 - ZERBITZUAK	%84,38	%7,73	%7,89

2.1: Taula. Unibertsitate-graduatuaren lan-egoera 2013-2014 ikasturtean ehunekoetan, ikasketa eremuaren arabera.


Lanean



2.2: Diagrama. Lanean dauden 2013-2014 ikasturteko unibertsitate-graduatuak, ikasketa eremuaren arabera.

Lanean dabilen gehienak Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak eta Ingenieritza, Industria eta Eraikuntza arlokoak dira. Bestalde, lan gutxien daukatenak Arteak eta Giza Zientziak dira, %8'9arekin.


Langabezian



2.3: Diagrama: Langabezian dauden 2013-2014 ikasturteko unibertsitate-graduatuak, ikasketa eremuaren arabera.

Langabezian dauden gehienak, arestian esan bezala, Arteak eta Giza Zientziak ikasi dituztenak dira, %16'8. Informatika ikasi dutenen langabezia tasa, berriz, oso baxua da, %3'1eko soilik.


Ez-aktibo



2.4: Diagrama: Ez-aktibo dauden 2013-2014 ikasturteko unibertsitate-graduatuak, ikasketa eremuaren arabera.

%17'3 da lan egiten ez duten pertsonen kopuru handiena, eta hau Arte eta Giza Zientzietako arloaren parte da; eta ondoren, Negozioa, Administrazioa eta Zuzenbidea. Baina jarduerazaren tasa txikiena Informatikako arloan dago, eta honek %2'4 baino ez dauka.

Unibertsitate-graduatuaren lan egoera, titulazioaren arabera



2.5: Diagrama. 2013-2014 ikasturteko unibertsitate-graduatuaren lan-egoera ehunekoetan, ikasketa eremuaren arabera.

3. Unibertsitate ikasketak uztea


Hipotesiak: Ikasketak alde batera uzten dituztenen kopuru handiena lehen urtean daudenei dagokie. Hauetatik gehiengoak, Zientzietako graduak dira. Hirugarren urtean, aldiz, bigarrenetan baino gutxiagok uzten dituzte.

Datuak:

	1.urtea*	2.urtea*	3.urtea*	Orokorra*
Esparru guztiak	%13,48	%5,33	%2,81	%21,63
01 - HEZKUNTZA	%8,89	%3,38	%1,69	%13,96
02 - ARTEA ETA GIZA ZIENTZIAK	%16,79	%6,95	%3,79	%27,53
03 - GIZARTE ZIENTZIAK, KAZETARITZA ETA DOKUMENTAZIOA	%18,85	%7,16	%3,73	%29,76
04 - NEGOZIOAK, ADMINISTRAZIOA ETA ZUZENBIDEA	%15,84	%6,33	%3,45	%25,61
05 - ZIENTZIAK	%11,62	%5,07	%3,09	%19,78
06 - INFORMATIKA	%21,8	%8,11	%3,79	%33,71
07 - INGENIARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA	%12,74	%4,76	%2,21	%19,69
08 - NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, BASOGINTZA, ARRANTZA ETA ALBAITARITZA	%12,93	%6,27	%2,97	%22,16
09 - OSASUNA ETA GIZARTE-ZERBITZUAK	%6,17	%2,38	%1,36	%9,92
10 - ZERBITZUAK	%12,65	%5,65	%3,22	%21,52

3.1: Taula. Espainiako unibertsitate-sistemaren uzte-tasen datuak ehunekoetan, ikasketa eremuaren arabera.

Espainiako unibertsitate-sistemaren uzte-tasa lehen hiru urteetan



3.2: Diagrama. Espainiako unibertsitate-sistemaren uzte-tasa lehen hiru urteetan ehunekoetan, ikasketa eremuaren arabera.

Lehenengo urtean, desberdintasun hau nabariagoa da ikasgaien artean bigarren eta hirugarren urteetan baino. Informatika da, adibidez, gehien uzten den ikasketa, %21'8ak lagatzen baitu.


4. Unibertsitate graduatuen mastererra-trantsizioa

Hipotesiak: Informatikako ikasleak izango dira mastererra gehien joango direnak. Hezkuntzako ikasleak, ostera, izango dira mastererra gutxien doazen ikasleak.

Datuak:

	Gradutik masterrera trantsizio-tasa
Esparru guztiak	%22,85
01 - HEZKUNTZA	%9,2
02 - ARTEA ETA GIZA ZIENTZIAK	%35,57
03 - GIZARTE ZIENTZIAK, KAZETARITZA ETA DOKUMENTAZIOA	%24,26
04 - NEGOZIOAK, ADMINISTRAZIOA ETA ZUZENBIDEA	%25,31
05 - ZIENTZIAK	%53,54
06 - INFORMATIKA	%21,36
07 - INGENIARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA	%35,6
08 - NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, BASOGINTZA, ARRANTZA ETA ALBAITARITZA	%24,76
09 - OSASUNA ETA GIZARTE-ZERBITZUAK	%8,09
10 - ZERBITZUAK	%25,18

4.1: Taula. Unibertsitate graduatuen masterrera trantsizio-tasen datuak, ehunekoetan, ikasketa eremuaren arabera.



4.2: Diagrama. Unibertsitate graduatuen masterrera trantsizio-tasak ehunekoetan, ikasketa eremuaren arabera.

Desbideratze handiena Zientzietako arloak dauka, haien %53'54 aldatzen baita. Horren aurkara, gutxien aldatzen diren graduak Osasungintza ikasten ari direnak dira.

5. Unibertsitateko graduen aldaketak


Hipotesiak: Batetik, Zientzia eta Informatika sailekoak dira gehien aldatzen direnak graduz. Bestetik, Lehen urtean gehiago aldatzen dira besteetan baino.

Datuak:

	1. urteko aldaketa- tasa	2. urteko aldaketa- tasa	3. urteko aldaketa- tasa	Aldaketa- tasa orokorra
Esparru guztiak	%8,31	%2,73	%1,24	%12,28
01 - HEZKUNTZA	%3,61	%0,99	%0,33	%4,93
02 - ARTEA ETA GIZA ZIENTZIAK	%8,65	%2,61	%1,08	%12,34
03 - GIZARTE ZIENTZIAK, KAZETARITZA ETA DOKUMENTAZIOA	%8,9	%2,72	%1,18	%12,79
04 - NEGOZIOAK, ADMINISTRAZIOA ETA ZUZENBIDEA	%8,39	%2,82	%1,29	%12,5
05 - ZIENTZIAK	%11,19	%3,38	%1,59	%16,16
06 - INFORMATIKA	%11,65	%3,48	%1,62	%16,75
07 - INGENIARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA	%12,55	%4,84	%2,42	%19,82
08 - NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, BASOGINTZA, ARRANTZA ETA ALBAITARITZA	%8,51	%3,8	%1,15	%13,46
09 - OSASUNA ETA GIZARTE-ZERBITZUAK	%5,86	%1,63	%0,78	%8,27
10 - ZERBITZUAK	%5,56	%2,08	%0,88	%8,52

5.1: Taula. Unibertsitateko ikasleen ikasketa aldaketa-tasa lehen hiru urteetan zehar ehunekoetan, ikasketa eremuaren arabera.

Ikasketa aldaketa-tasa lehen hiru urteetan




5.2: Diagrama. Unibertsitateko ikasleen ikasketa aldaketa-tasa lehen hiru urteetan zehar ehunekoetan, ikasketa eremuaren arabera.

Gehien bat lehenengo ikasturtean aldatzen dira, bigarren eta hirugarren urteetan, berriz, gutxik dute joera hori. Gehien aldatzen direnak, Ingenieritza, Industria eta Eraikuntza eremuko ikasleak dira.


6. Korrelazioa:

Aldaketa-tasa orokorra eta gradutik mastererako trantsizio-tasa




6.1: Barreiadura-diagrama. Unibertsitateko ikasleen ikasketa aldaketa-tasa orokorra lehen hiru urteetan zehar ehunekoetan, eta ikasleen gradutik mastererako trantsizio-tasa.

Aldaketa-tasa orokorra eta Espainiako unibertsitate-sistemaren uzte-tasa orokorra




6.2: Barreiadura-diagrama. Ikasleen ikasketa aldaketa-tasa ehunekoetan, eta Espainiako unibertsitateko ikasleen uzte-tasa.

Ez-aktibo eta Langabezian




6.3: Barreiadura-diagrama. Ikasketak bukatzerakoan ikasleen egoera; ez-aktibo eta langabezian.

Langabezian eta Lanean



6.4: Barreiadura-diagrama. Ikasketak bukatzerakoan ikasleen egoera; langabezia eta lanean.

Lanean eta Ez-aktibo



6.5: Barreiadura-diagrama. Ikasketak bukatzerakoan ikasleen egoera; ez-aktibo eta lanean.

Ondorioak

Ikasketak uztea - Ikasketak aldatzea

Bi datu honek elkarren artean 0,67ko korrelazio dute, beraz, ikus dezakegu elkarren arteko korrelazioa handia ez izan arren, nahiko esanguratsua dela.

Taulan ikus dezakegun bezala, uzte tasa handiena Informatikako arloan dago, %21'8 koa izanda, eta horren jarraian doa baita ere Gizarte Zientzien gradua, %18'85 arekin. Baina datu hauek, aldatze tasan aldatu egiten dira, hemen Ingenieritza baita daturik altuena daukan ikasgaia. Azken honek %12'55 eko tasa dauka, baina, Informatika eta Zientzietako arloko datuak ere ez dabiltzala oso sakabanatuta ikus daiteke, %11'65 eta %11'19ko datuak baituzte.

Ikasketak aldatzea - Masterrerako trantsizioa

Bi datu honek elkarren artean 0,49ko korrelazio dute, beraz, ikus dezakegu elkarren arteko korrelazioa ez dela oso handia, ertaina baizik.

Orain ere grafikora begiratuta, aldatzen den ikasleen kopuru handiena Ingenieritza, Industria eta Eraikuntza graduak direla dakigu; baina, masterrerako-trantsizioa egin dutenen kopurua handiena Zientzietako arlokoena da, ikasleen %53'54a izanik. Baxuena, berriz, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuko jendea da, %8'09a soilik.

Lan egoerak

Langabezian eta lanean, lanean eta ez-aktibo, eta langabezian eta ez-aktiboko datuen korrelazioak ia berdinak dira 0,98-koa baina azkenengoak 0,99ko korrelazioa dauka. Beraz, korrelazio oso altua daukala ikus daiteke, datuak bata bestearengandik oso elkartzuta egonda, bat izan ezik, besteetatik aldentuta dagoelako. Hiru diagrametako korrelazioa posistiboa da.

Lanean gehien diharduten langileak Negozioa, Administrazio eta Zuzenbideen ikasketak dituztenak dira, eta lan gutxien egiten dutenak, berriz, Nekazaritza, Abeltzaintza, Basogintza eta Arrantza ikasi dutenak dira; 45.000tik 3.574 pertsonak baino ez zuten lanik egin arlo hauetan 2013-2014 urteen artean, bataz-besteko bezala. Langabeziako tasarik baxuena Informatikak dauka, 153 pertsonekin 45.000tik. Eta aktibitate gehien dutenak informatikariak dira, 102 pertsona da aktibitate gehien duten pertsonen bataz-bestekoa eta.

Hobekuntzak

Azterketa honetan datu kualitatibo (gradu eta karrera desberdinak) eta kuantitatiboak (ikasle kopurua; lan-, langabezi- eta inaktibitate-tasa...) daude.

Bibliografia

- Ministerio de Educación y Formación Profesional del Gobierno de España eta Ministerio de Universidades del Gobierno de España. (2014–2015). *Tasa de transición de Grado a Máster (estudiantes egresados) por tipo y modalidad de la universidad, ámbito de estudio y sexo* [Datu-multzoa]. EDUCAbase.
http://estadisticas.mecd.gob.es/EducaJaxiPx/Datos.htm?path=/Universitaria/Indicadores/2021/Grado//10/&file=Cambio_Grado_Tot.px&type=pcaxis
- Ministerio de Educación y Formación Profesional del Gobierno de España eta Ministerio de Universidades del Gobierno de España. (2013–2014). *Tasas de abandono del SUE (cohortes de nuevo ingreso en el estudio) por tipo y modalidad de la universidad, ámbito de estudio y sexo* [Datu-multzoa]. EDUCAbase.
http://estadisticas.mecd.gob.es/EducaJaxiPx/Datos.htm?path=/Universitaria/Indicadores/2021/Grado//10/&file=AbandonoSUE_Grado_Tot.px&type=pcaxis
- Ministerio de Educación y Formación Profesional del Gobierno de España eta Ministerio de Universidades del Gobierno de España. (2013–2014). *Tasas de cambio del estudio (cohortes de nuevo ingreso en el estudio) por tipo y modalidad de la universidad, ámbito de estudio y sexo* [Datu-multzoa]. EDUCAbase.
http://estadisticas.mecd.gob.es/EducaJaxiPx/Datos.htm?path=/Universitaria/Indicadores/2021/Grado//10/&file=Cambio_Grado_Tot.px&type=pcaxis

- RRHHDigital. (2019ko maiatzaren 13a). *Solo el 52% de los jóvenes elige su carrera universitaria por vocación*. 2022ko otsailaren 20an berreskuratua:
<http://www.rrhhdigital.com/secciones/empleo-joven/136545/Solo-el-52-de-los-jovenes-elige-su-carrera-universitaria-por-vocacion?target=self>
- “https://www.flaticon.com/free-icon/education_4207253?k=1646394564219” Portada Flaticon.com-eko baliabideak erabiliz diseinatu da.